

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Eskola Agenda 2030,
ikasgelatik herrira**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzeke telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

Eskola Agenda 2030	3
Lehen sektorea ezagutzen eta ezagutarazten	5
Azpeitiko Elikadura Mahaia	7

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren
Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak
atera, eskaera orokorrak eta lizentzia eskaerak aurkeztu edo
kontsultak egin ditzakezu bertan. Udako ordutegian, 07:30etik
14:30era izaten da zabalik, astelehenetik ostiralera.



Eskola Agenda 2030: bi hamarkada baino gehiago ikasleei ahotsa ematen

Azken hogeit urteetan herriko ikastetxeren batean ikasle izan diren guztiei egingo zaie ezaguna Eskola Agenda programa. Eskola Agenda 21 izenarekin aurrena eta Eskola Agenda 2030 izenarekin ondoren, urteak daramatzate ikasleek garapen jasangarrirako helburuak jorratzen. Elikadura eta osasuna landu dituzte azken bi ikasturteetan, eta tokiko produktuen salmenta bultzatzeko kanpaina bat sortuz eman diote amaiera.

United Nations erakundeak bultzatzen du Eskola Agenda 2030, eta mundu mailako hezkuntza programa da. Garapen jasangarrirako hamazazpi helburu ditu finkatuta erakunde horrek (pobrezia desagerraraztea, genero berdintasuna, lan duina eta hazkunde ekonomikoa...), eta horiek lortzen laguntzea du xede, herritarrik gazteenen laguntzarekin.

Azpeitian, herriko hiru ikastetxeek hartzen dute parte programan, LH1etik batxilergora arteko ikasleek hain zuzen ere, eta Ekoetxearekin eta Azpeitiko Udalarekin elkarlanean garatzen dute. Ikasleek ingurumenari, gizarteari eta jasangarritasunari buruzko arazoak aztertzen dituzte, eta hobekuntzak proposatzen dituzte. Hau da, ikasgeletatik abiatu eta herrira zabaltzen den lanketa bat egiten dute.

Herriko hiru ikastetxeek hartzen dute parte programan, udalaren eta Ekoetxearekin elkarlanean

URTE OSOKO LAN ANTOLATUA

2003-2004 ikasturtean hasi ziren Eskola Agenda lantzen Azpeitian. Aldatzen eta egokitzen joan da urteek aurrera egin ahala, eta, oro har, programa oso aberasgarritzat du Azpeitiko Udalak. Izan ere, jasangarritasuna lantzeko balio du, elkarlana indartzen du eta gazteen parte hartzea sustatzen du.

Hain zuzen ere, programaren bidez, herriko ikasleek, Ekoetxeak eta udalak hainbat ekintza eta proposamen elkarrekin landu izan dituzte azken urteotan. Irakasle koordinatzaileak dituzte hiru ikastetxeek, eta Ekoetxean elkartu ohi dira, Ekoetxeko langileekin eta Berritzeguneko teknikari batekin batera, koordinazio bilerak egiteko.

Udaleko Ingurumen teknikariak koordinazio bilerak horietan zein ikasleen arteko foroetan parte hartzen du. Ikasleen ordezkari moduan, berriz, ekoordezkariak daude, ikastetxe barruan programaren jarraipena egiteko. Era berean, ikasleen ordezkaritza bat udaletxera joaten da urtero, ikasturte amaieran, zer egin duten azaltzeko. Berrikuntza moduan, aurten ikasturte hasieran ere joan dira. Modu horretan, herria hobetzeko proposamenak zuzenean egin ahal izaten dizkiote udalari ikasleek, eta haien esana kontuan hartzen du udalak. Parte hartzeko aukera izateaz gain, euren ideiek balioa dutela sentitzeko aukera eman die horrek gazteei.

Gaia aukeratzeko askatasuna izaten du herri bakoitzak. Azken ikasturteetan, esate baterako, ekoizpen eta kontsumo arduratsua (2020-2021), lehorreko ekosistemetako bizitza (2021-2022), energia, bizitzaren motorra (2022-2023 eta 2023-2024), eta elikadura eta osasuna (2024-2025 eta 2025-2026) gaiak landu dituzte Azpeitian.

Gai horien bueltan ikasleek egindako proposamenak eta udalaren lan ildoak bat etorri izan dira maiz, eta udalak erantzuna eman die ikasleen proposamenei.

ESKOLA AGENDA 2030 PROIEKTUAREN HELBURU NAGUSIAK:

- **Ikasleak jasangarritasunean eta herritartasun arduratsuan hezteak.**
- **Ingurumenarekiko eta gizartearekiko kontzientzia handitzea.**
- **Parte-hartzea, lankidetzak eta konpromisoa sustatzea.**
- **Eskola eta herria hobetzeko ekintza praktikoak egitea.**

2003-2004 ikasturtetik lantzen da Azpeitian; hasieran, Eskola Agenda 2021 izenarekin, eta duela lau urtetik, Eskola Agenda 2030 izenarekin.

2.500 IKASLE

2.500 ikaslek parte hartzen dute urtero. LH1etik hasi eta batxilergora arteko ikasleek.

Bi ikasturteko antolatzen da: aurreneko ikasturtean herriko egoerari buruzko diagnostikoa egiten dute ikasleek, eta bigarrengoan, ekintza plana.



Lehen sektorea ezagutzen eta ezagutarazten



“Proiektu honekin, baserritarren lana hobeto ezagutu dugu eta bertako produktuen garrantziaz ohartu gara”. Balorazio hori egin zuten, ikasturte amaierako udal foroan, Eskola Agenda 2030 proiektuan parte hartu duten ikasleek. Erronka nagusi bat izan dute aurtengo ikasturtean: tokiko eta lehen sektoreko elikagaien salmenta bultzatzeko informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat sortzea.

2.500 ikasle inguruk lantzen dute Eskola Agenda 2030 proiektua, eta guztien ordezkaritza moduan, 50 ekoordezkaritza inguruko taldea izan zen udal foroan. Nagore Alkorta alkateak eta Joanes Amenabar Ingurumen batzordeburuak egin zieten harrera, eta azken hilabeteotan egindako lana aurkeztu zuten ikasleek.

Lehen sektoreko elikagaien salmenta bultzatzeko kanpaina bat sortu dute ikasleek aurtengo ikasturtean

AURRENA DIAGNOSTIKOA, ONDOREN EKINTZA PLANA

Bi urteka antolatzen da programa. Zer gai landu erabaki ostean, herriko egoeraren diagnostikoa egingo dute ikasleek lehen ikasturtean; bigarrenengoan, berriz, ekintza planaren txanda izaten da. Elikadura eta osasuna izan da oraingo honetan landu beharreko gaia, garapen jasangarriko 3. helburua (osasuna eta ongizatea) eta 12. helburua (ekoizpen eta kontsumo arduratsuak) oinarri hartuta.

Diagnostikoa egin ahal izateko, 2024-2025 ikasturtean, besteak beste, hamaiketakoak, elikagaien jatorria, etiketak, janari soberakinen kudeaketa, baserritarren egoera eta elikaduraren aztarna ekologikoa aztertu zituzten ikasleek. Ikasturte amaieran, Eskolarteko Foroa egin zuten Ekoetxean, eta hainbat aukeraren artean, 2025-2026 ikasturterako ekintza moduan, tokiko eta lehen sektoreko elikagaien salmenta bultzatzeko informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat sortzea adostu zuten.



BIDEOA



ETAPA BAKOITZAK, LANKETA PROPIOA

Kanpaina sortu ahal izateko, azokara joan, baserritarrekin hitz egin, herriko ekoizleak ezagutu, bideoak grabatu, mapak aztertu eta abar egin behar izan dituzte. LH1etik batxilergora arteko ikasleek hartzen dute parte Eskola Agendan, eta ekintza plana guztien artean gauzatzen duten arren, etapaka banatu ohi dituzte egin beharreko zereginak.

Kanpainarako irudi bat sortzeaz arduratu dira txikienak; eslogana aukeratu eta baserritarren fitxak prestatu dituzte beste adin tarte batekoek, eta azokara ere joan dira baserritarrek ezagutzera. Beste batzuek azokara oinez edo bizikletaz joateko bideak aztertu dituzte, eta segurtasuna, irisgarritasuna eta erosotasuna kontuan hartuta, biderik egokienak zein diren aukeratu dute.

DBH1 eta DBH2koek, berriz, baserritarrei buruzko bideo bat prestatu dute. Ikus-entzunezko horren helburua izan da lehen sektoreko lana ezagutaraztea, tokiko eta sasoiko produktuak erosteko dauden aukerak aurkeztea eta zenbait mito haustea. Azkenik, DBH 3 eta DBH4koek gida bat prestatu dute, herritarrek azokako ekoizleak hobeto ezagutzeko.

Udal ordezkariari aurkeztu ostean, herritar guztiek ere izango dute ikasleek sortutako materiala ezagutzeko aukera.

LH1etik batxilergora arteko ikasleek hartzen dute parte, eta etapaka banatu ohi dituzte zereginak



Lehen urratsak, Azpeitiko Elikadura Mahaia sortzeko bidean



JOANES AMENABAR Zinegotzia

"Elikadura Mahaiari esker,
etorkizuneko erronkei modu
koordinatuan heldu nahi diegu".

Sortzear dago Azpeitiko Elikadura Mahaia. Helburu nagusi bat izango du: herriko elikadura sistema indartzea, elikadura burujabetzarantz aurrera egiteko. Horretarako, lehen sektorea sustatzeko lan egingo du, baita tokiko ekoizpen, eraldaketa eta kontsumoaren arteko loturak sendotzeko ere. Horrez gain, baliagarria izango da landagunearen eta herrigunearen arteko lotura sendotzeko.

Joanes Amenabar zinegotziak azaldu duenez, Azpeitiko Elikadura Mahaiaren sorrera "urrats garrantzitsua" izango da herriko elikadura sistemaren inguruan lankidetzaren sare sendagoak eraikitzeko. "Azpeitian, elikaduraren bueltan lanean ari diren eragile ugari ditugu, oso baliotsuak. Mahai honi esker, guztiak elkargune berean bildu, eta etorkizuneko erronkei modu koordinatuan heldu nahi diegu, Azpeitiaren etorkizunearako hain garrantzitsua den sektore bati bultzada emateko".

Hasiera batean, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizleak, lehen sektoreari lotutako eragile eta erakundeak eta udal ordezkariak egongo dira mahai horretan. Amenabarrek esanetan, elkarlana izango da mahaiaren ardatza. "Mahaiaren osaera eta lehentasuneko lan ildoak elkarrekin definitu nahi ditugu, eta lanketa horretan hasita gaude dagoeneko. Besteak beste, ekoizpena sustatzea, tokiko merkaturatzea indartzea, kontsumo arduratsua sustatzea eta eragileen arteko saretzea eta lankidetzaren bultzatzea aipatu izan dira mahaiaren lan lerro estrategikotzat".

Hain zuzen ere, mahaia sortzeko prozedura martxan dago. Lehen bilera batzuk egin dituzte, eta mahaiaren oinarriak finkatzeko lanketa amaitutakoan, mahaia ofizialki aurkeztea aurreikusten da.



Etxebizitza Bulegoa

Enparan Kalea 34

943 15 71 83

Ordutegia:

- Astelehen, asteazken eta ostiraletan: 08.00-14:00
- Asteartek: 08:00-13:30 eta 14:30-17:30
- Ostegunak: 08:00-13:30 eta 15:00-19:00 (udaletxean)

www.azpeitia.eus